



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroak 9**

**Vitoria-Gasteiz, 9 de noviembre de 2021**

## Lana eta Enplegua

### **ENPLEGU SAILAK PERTSONALA INDARTU DU LEHENTASUNEZKO ARRETA-GUNEETARAKO ETA EEM-ETATIK ERATORRITAKO PROIEKTU BERRIEI ERANTZUTEKO**

Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu egin du Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzako langileen kopurua handitzea, haien eskumeneko proiektu berriei erantzuteko. Proiektu berri horiek Eusko Jaurlaritzaren lehentasunezko arretarako guneetarako Berpiztu programaren ezohiko funtsetatik eta Espainiako Gobernu hainbat ministeriorekin sinatutako hitzarmenetatik eratorritakoak dira.

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Zuzendaritzak bi bitarteko funtzionario izango ditu datozen hiru urteetan aparteko eta behin-behineko zereginetarako; zeregin horiek izango dira, besteak beste, Gobernu Programatik eratorritakoak, Lehentasunezko Jarduketa Eremuetarako Berpiztu programari lotutakoak eta EEMen ezohiko proiektuei dagozkienak.

Kasu guztietan, jarduera berritzaileak dira, eta, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren lege-garapenarekin eta Euskal Enplegu Sistemaren Legea idaztearekin batera, ezagutza-, ikerketa- eta esperimenezko sare bat sortuko dute, enplegurako eta gizarteratzeko jarduerak.

Horri gehitu behar zaio Inklusioraren arloa hobetzeko eta garatzeko helburua, besteak beste, honako ekintza hauekin: inklusiorako-mahai kopurua handitzea; emaitzetan sinergiak bilatzea inklusiorako beste programa batzuekin; Gizarteratze Planean berrorientazioak eta berrikuntzak egitea; laneratzeko enpresen aldeko apustua egitea; diagnostikorako eta triajerako tresna berriak eta inklusiorako plan integratu pertsonalizatuak bilatzea (IPIP).

Ezohiko jarduerari dagokienez –Covid-19aren pandemia gainditu ondorengo susperraldi sozioekonomikotik eratorritakoak–, ‘Oarsoaldeako laneratzeko-programa’ proiektua gauzatzen jarraituko da 2022an; 2021ean ekindako bideari jarraituz, datorren urtean gauzatuko dira horri lotutako jarduera- eta aurrekontu-programa gehienak.

Horri beste bi proiektu gehitu behar zaizkio:

- Gizarteratze Ministerioarekin hitzarmena sinatzea, Lanbideren bidez, gizarteratzeko proiektu pilotuak abian jartzeko.
- Gazteentzako prestakuntza- eta enplegu-programa, ordaindutako praktiken edo prestakuntza-kontratuen bidez. Proiektu pilotu bat da Espainia osorako, Lan Ministerioarekin eta SEPErekin adostua, eta Euskadik Extremadurako eta Valentziako Erkidegoekin batera parte hartzen du.

## Lana eta Enplegua

### **GIZARTE-ERAGILEEN PRESTAKUNTZA-PLANETARAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU BERRIA ONARTU DA**

Jaurlaritzaren Kontseiluak, gaurko bileran, sindikatu- eta enpresa-erakundeei diru-laguntzak ematea arautzen duen dekretu berria onartu du, erakunde horiei lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten beren jarduera-eremuetako gaietan.

Araudi berri horrek ordeztu egiten du duela 18 urtetik indarrean dagoena, enpresaburuak elkarrekin eta erakunde sindikalei beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dagokienez giza baliabideen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak egiteko laguntzak ematea arautzen duena.

Araudi hori eguneratzeko eta diru-laguntzen arloko Estatuko oinarrizko legeriara egokitzeko, Idoia Mendia Lan eta Enplegu sailburuak eta lehendakariordeak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak dekretu hau onartu du, gizarte-eragileak sendotzeko negoziazio kolektiboari eta elkarrizketa sozialari dagozkien gaietan egiten dituzten prestakuntza-jardueretan.

Horrela, eta langileek enpresan parte hartzearen arloko prestakuntzari laguntzeko Legebiltzarraren agindua betez, aurrera egiten da Soldata Baliarako Plan Operatiboan ere, gizarte-eragileek berdintasunaren arloan duten prestakuntza lehenesten baita. Horrekin batera, diru-laguntzen araudia eguneratzen da, eta izapideak eta planen balorazioa sinplifikatzen da.

Dekretuan honako hauek arautzen dira: diruz lagun daitezkeen jarduerak, deialdiaren prozedura (urtekoa izango da) eta laguntzak ematekoa, eta prestakuntza-planak baloratzeko eta laguntzak kuantifikatzeko irizpideak.

## Hezkuntza

### 55 MILIOI EURO MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEAREN ERAIKIN BERRIA ERAIKITZEKO URTE ANITZEKO PLANAREN BAITAN

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, UPV/EHUri zuzeneko dirulaguntza bat ematea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berriaren eraikuntza finantzatzeko, inbertsioen urte anitzeko planaren baitan. Dirulaguntza horren kopurua 55.035.217,94 eurokoa da, 2021-2025 tarterako.

Proiektu honetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzatuko duen guztizko aurrekontua 55.614.435,86 eurokoa da. Kopuru honek barne hartzen ditu proiektuaren idazketa, obra-zuzendaritza, kalitate-kontrola eta eraikinaren obra bera. Kopuru horren barruan, 2019ko eta 2020ko ekitaldietan, Eusko Jaurlaritzak 579.217,93 euro finantzatu ditu dagoeneko, proiektuaren idazketari dagozkionak.

Beraz, Hezkuntza Sailak eraikin berriaren proiektua gauzatzeko 2021etik 2025era bitartean finantzatu beharreko zenbatekoa 55.035.217,94 eurokoa da, urteka honela banatuta:

2021	2022	2023	2024	2025	GUZTIRA
392.723,99 €	3.500.000 €	14.600.000 €	29.400.000 €	7.142.493,95 €	55.035.217,94 €

Urte bakoitzeko dirulaguntza egindako gastua justifikatu ondoren ordainduko da, horretarako aurrekontu-ekitaldi bakoitza amaitu aurretik aurkeztu beharreko direlarik agiriak.

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria Bilbon egingo da, Basurtuko Ospitalearen ondoan. Medikuntza, Fisioterapia eta Erizaintzako Graduak hartuko ditu, baita Osasun Zientzien arloko master ofizialen irakaskuntza ere.

Aipaturiko gradu horiez gain, eraikin berria Polo aurreratu bat ere kokatuko da: “*Osasun Zientzien Unibertsitate Prestakuntzarako, Ikerketarako eta Ezagutzaren Transferentziarako Polo Aurreratu*”. Polo hau Ingeniaritza Biomedikoaren sektoreko enpresen berrikuntzarako ikerketa aplikatuko proiektuak garatzeko ingurunea izango da; eta patenteak eta *start-up*-ak jaiotzean sortutako ezagutzaren transferentziarako elementu dinamizatzailea ere bai. Era berean, elkarlaneko ikerketaren eta transferentziaren arloa lankidetzaren bidez bultzatuko da, EHuko erreferentziazko prestakuntza-zentroyen eta oinarritzko eta ikerketa aplikatuko BERC zentroyen arteko lankidetzaren bidez, besteak beste, *Achucarro Basque Center for Neuroscience*, *BCMaterials* edo *Biofisika* BERC-en bidez.

Gaur egun, proiektua obra-lizitazioaren fasean dago.

## Hezkuntza

### **2,9 MILIOI EURO LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO IKASTETXEETAN MAKINAK ETA/EDO EKIPAMENDUAK ESKURATU EDO ERRENTAN HARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, dirulaguntzak deitzen dituen Agindu bat, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatueek makinak eta/edo ekipamenduak erosi edo errentan har ditzaten.

2.918.106 euroko diru-kopurua duen deialdi honen xedea da, makineria eta/edo ekipamendua erosteko edo errentan hartzeko kuotak finantzatzeko dirulaguntzak emateko prozeduraren deialdia egitea, bai eta makina eta/edo ekipamendu horrek eragindako instalazio-gastuak ere. Deialdi honek bi lerro bereizten ditu, jarduera-eremuaren arabera:

1. eremua: oro har, modalitate presentzial osoan ezarritako Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxe itunduei zuzendua, heziketa-ziklo bakoitzerako ezarritako makineria eta/edo ekipamendu espezifikoa eguneratzeko eta espazioak egokitzeko, ikasteko metodologia eta tresna berritzaileak ezarri ahal izateko. Eremu honek 1.218.106 euroko kopurua du.

2. eremua: modalitate presentzial osoan ezarritako Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxe integratu itunduei zuzendua, 4.0 inguruneen erronkei erantzuteko eta eraldaketa digitalerako eta Lanbide Heziketaren jasangarritasunerako planak ezartzeko. Eremu honek 1.700.000 euroko finantzazioa du.

Ikastetxeetatik jasoriko finantzazio eskaeren balorazioa egiteko, lehen eremuan, batzordeak kontuan hartuko dituen irizpideak honakoak dira: eskaera egiten duen ikastetxeak eskaintzen duen ziklo kopurua; ziklo horietan matrikulaturiko ikasle kopurua; erronketan oinarritutako ETHAZI ikaskuntza-metodologiak ikastetxean duen ezarpen-maila; edo ikastetxearen parte hartzea Hezkuntza Sailak bultzatutako ekintzailtza-programetan.

Bigarren esparrurako, berriz, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan balorazioa egiteko: erositako ekipamenduaren egokitasuna, 4.0 inguruneko berezko teknologiak inplementatzeko (errealitate areagotua edo birtuala, elkarlaneko robotika, fabrikazio gehigarria, internet industrial...); ekipamendu horrek ikastetxean izango duen irismena; inbertsioak ikasleen eta irakasleen artean izango duen eragina; diruz lagundutako makineriak ikastetxean abiatutako proiektuekin duen lotura; edo teknologia haetan irakasleak prestatzeko planak.

#### **Eguneratzea, ezinbestekoa**

Gaur egun, adimen artifiziala, robotika, droneak, 3D inprimagailuak, gauzen Internet, errealitate birtuala edo sare digitalak bezalako berrikuntzak ondasunen eta zerbitzuen ohiko trukea erabat aldatzen ari diren fenomenoak dira. Horiek

guztiek, erronka handiak dakartzate enpresa-sektorearentzat eta pertsonen prestakuntzarentzat.

Testuinguru horretan, Lanbide Heziketa ezinbesteko bidelaguna da gaur egun Euskadin, bai pertsonen enplegarritasunerako, bai enpresen lehiakortasunerako. Erronka horiek Lanbide Heziketako ikastetxeen parte-hartze aktiboa eskatzen dute, 4.0 gizarte baten benetako beharretara egokitutako prestakuntza bultzatu eta garatzeko beharrezkoak diren aldaketak egin behar baitituzte. Zeregin honetan, ekipamendu eguneratua eta espezifikoa izatea ezinbestekoa zaie Lanbide Heziketako ikastetxeei.

Joan den ikasturtean, lehen eremuaren barruan, Lanbide Heziketako itunpeko 39 ikastetxek jaso zituzten laguntza ekonomiko horiek, eta 2. eremuaren barruan, 30 ikastetxek.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **ELANKIDETZAK BABESTUKO DITU GARAPENERAKO LANKIDETZAKO, LAGUNTZA TEKNOLOGIKOKO ETA GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAKO 77 PROIEKTU**

- **Guztira, 32 milioi euro zuzenduko dira, batez ere, Erdialdeko Amerikan, Hego Amerikan, Saharaz Hegoaldeko Afrikan eta Euskadin egingo diren proiektuetara**

Gobernu Kontseiluak onartu du garapenerako lankidetzako proiektuetarako laguntzen 2021eko ebazpena. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikako eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak egindako aurtengo deialdian 32 milioi euro bideratu ditu 77 proiektu finantzatzera. Azken horiek hiru modalitate nagusietan banatzen dira: garapenerako lankidetzako proiektuak; garapen produktiboko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuak, eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza proiektuak. Honako deialdia eLankidetzaren ardatz garrantzitsuena da, bai funtsei dagokionez, eta baita sustatzen dituen eragile eta ekintza kopuruagatik ere.

eLankidetzaren lehentasun estrategikoei jarraituz, onartutako ekimenen % 26 emakumeen ahalduntzeari zuzenduak daude eta % 9 giza eskubideen defendatzaileen babestera. Bestalde, % 20 Afrikan egingo dira.

#### **Tokiko testuinguruak lagunduz, erronka globalei erantzun**

Garapenerako lankidetzaren proiektuek balio dute pobrezia aurkako borrokarako eta pobretutako Hegoaldeko herrialdeen tokiko garapenerako prozesuak indartzeko.

Azken horietara bideratu dira funts gehienak —26 milioi euro inguru— eta 53 proiektu jasoko dute dirulaguntza. 21 herrialdetan egingo dira, horietatik nagusiak dira El Salvador, Guatemala eta Peru, eta, Afrikan, Senegal eta Boli Kosta.

Garapenerako lankidetzako proiektuak Hegoaldeko erakunde bidez gauzatuko dira, eta, nagusiki bideratuko dira emakumeen ahalduntzera eta emakumeen eta LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aldeko borrokara, giza eskubideen defendatzaileak babestera, eredu ekonomiko solidarioak eta jasangarriak sortzera, haurren eta gazteen egoera hobetzera edota komunikazio proiektuetara, besteak beste.

Garapen produktiborako, prestakuntzarako eta laguntza teknologikorako ekimenei dagokienez, lau proiektu onartu dira Kuban eta Kolonbian. Guztira, 1,2 milioi euro jasoko dituzte.

Azkenik, gizarte-eraldaketarako hezkuntzan 20 proiektu onartu dira, eta 4,7 milioi euro baino gehiago zuzenduko zaizkie formazioetan jorratzera giza eskubideak,

ekonomia soziala eta solidarioa, elkartasun balioetan hezteak, emakumeen ahalduntzea eta feminismoak.

Proiektu horiek guztiak Euskadin egingo diren arren, Hegoaldeko errealitatearekin lotura izango dute; izan ere, helburua da munduko desberdintasunak sortzen dituzten egiturazko arrazoien ulermena sustatzea eta, gizartea eraldatzeko, euskal herritarren inplikazioa eta konpromisoa bultzatzea. Aurten, eLankidetzak 5,9 milioi euro esleitu ditu ekintza humanitarioko proiektuetara, gatazka testuinguruetan edo indarkeria egoeretan krisi humanitarioak jotako pertsonak babesteko, eta beste 218.000 euro zazpi GGKEri laguntzeko barne-funtzionamenduko maila guztietan genero desberdintasunak desagerrarazteko.



## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **ELANKIDETZAK LAGUNDUKO DU EKONOMIA ALTERNATIBO ETA SOLIDARIOAREN SAREA**

Gobernu Kontseiluak 150.000 euroko zuzeneko dirulaguntza bat onartu du, gaur. eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatuko du, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saileko dena.

Laguntza REAS Euskadi elkartera zuzenduko da, ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea. Helburua da Latinoamerikaren eta Euskadiren arteko lankidetzaren sustatzea, ekonomia solidarioaren zirkuitu ekonomikoak indartzeko. Horretarako, indartuko da REAS eta Partekatutako sareak osatzen duten eragileen gaitasunak eta ekonomia solidarioa inpaktu handiagoa izateko aukerak.

## Kultura eta Hizkuntza

### **EUSKO JAURLARITZAK 100.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ONARTU DU AGUSTÍN IBARROLAREN *GUERNICA GERNIKARA* ARTELANA EROSTEKO**

Bilboko Arte Ederren Museoak joan den urriaren 18an aurkeztu zuen Agustín Ibarrola artista bilbotarraren *Guernica Gernikara* izeneko margolana. ARCOren aurtengo edizioan eskuratu zuen artelana Bilboko Arte Ederren museoak 300.000 euro ordainduta.

Bilboko museoaren fundazioa osotzen duten hiru erakundeek, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak, margolana erosteko bakoitzak ezohiko 100.000 euroko dirulaguntza ematea adostu zuten eta horrela erosi da Agustín Ibarrolak 1979an egindako olioia. Artelanaren erosketak euskal ondare artistikoa berreskuratzen eta hedatzen laguntzen du.

#### ***Guernica Gernikara***

Agustín Ibarrola artista bilbotarrak 1979an margotu zuen *Guernica Gernikara*. 200 x 100 zentimetroko mihise gaineko hamar oleoz osatutako friso narratibo handi bat da, Picassoren *Guernica* (1937) inspirazio-puntu sinboliko gisa hartuta. Koadroa 1977an lehen aldiz egon zen ikusgai Bilboko Arte Ederren Museoan, baina 1980ko hamarkadaren hasieratik ez da berriro erakutsi.

Artelana Euskal Herriko historia politiko eta sozialaren garai jakin baten testigantza da; pieza aparta, bai bere dimentsioengatik eta baita kalitate tekniko eta narratiboagatik ere, eta margolariaren heldutasun artistikoa nabaria da. Gainera, Ibarrolaren lanen artean berezitasun handienetako obra bat da, eta, euskal artearentzat ez ezik, gerraosteko arte espainiarrantzat ere balio artistiko eta historiko handia du.

## Trabajo y Empleo

### **EMPLEO REFUERZA SU PERSONAL PARA ATENDER LOS NUEVOS PROYECTOS PARA ZONAS DE ATENCIÓN PREFERENTE Y LOS DERIVADOS DE LOS MRR**

El Consejo de Gobierno ha aprobado el incremento del personal en la Dirección de Empleo e Inclusión para atender los nuevos proyectos en materia de su competencia que se derivan de los fondos del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (MRR), además de los fondos extraordinarios del programa Berpiztu del Gobierno vasco para las Zonas de Atención Preferente y los convenios suscritos con diferentes Ministerios del Gobierno de España.

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, la Dirección contará durante los tres próximos años con dos funcionarios/as interinos/as para tareas excepcionales y no permanentes en el tiempo, como son las derivadas del Programa de Gobierno y las asignadas por el programa Berpiztu en relación a las Zonas de Actuación Preferente y de los proyectos extraordinarios de los MRR.

En todos los casos se trata de actuaciones innovadoras que, junto al desarrollo normativo de la futura Ley del Sistema Vasco de Garantía de ingresos e Inclusión y la redacción de la Ley del Sistema Vasco de Empleo, van a dar lugar a una red de conocimiento, investigación y experimentación sobre actividades de empleo e inclusión.

A ello se suma el objetivo de mejora y desarrollo del Área de Inclusión con acciones como el incremento del número de ‘mesas de inclusión’, la búsqueda de sinergias en sus resultados con otros programas de inclusión, las reorientaciones e innovaciones en el próximo ‘Plan de inclusión’, la apuesta por las empresas de inserción, la búsqueda de nuevos instrumentos de diagnóstico, triaje y planes integrados personalizados de inclusión (PIPEI), entre otras.

En cuanto a las actividades extraordinarias, actividades derivadas de la recuperación socioeconómica tras la superación de la pandemia del Covid-19, en 2022 se continuará con la ejecución del proyecto ‘Polo de inserción Oarsoaldea’, iniciada en 2021 y donde se ejecutarán buena parte de sus programas de actuación y presupuesto.

A ello se suman dos nuevos proyectos:

- El convenio con el Ministerio de Inclusión para la puesta en marcha, a través de Lanbide, de proyectos de piloto de inclusión.
- Y el Programa de formación y empleo para jóvenes a través de prácticas remuneradas o contratos en formación, un proyecto piloto para toda España acordado con el Ministerio de Trabajo y el SEPE en el que Euskadi participa junto a las Comunidades de Extremadura y Comunidad Valenciana.

## Trabajo y Empleo

### **APROBADO EL NUEVO DECRETO QUE REGULA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA PLANES FORMATIVOS DE LOS AGENTES SOCIALES**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy el nuevo Decreto por el que se regula la concesión de subvenciones a organizaciones sindicales y empresariales para el desarrollo de planes formativos dirigidos a mejorar la cualificación de las personas a ellas vinculadas en temas propios de sus ámbitos de actividad.

Esta nueva regulación sustituye a la vigente desde hace 18 años para regular la concesión de las ayudas a las asociaciones empresariales y a organizaciones sindicales para el desarrollo de planes formativos dirigidos a mejorar la cualificación de sus recursos humanos en temas propios de sus ámbitos de actividad.

Con el fin de actualizar esta normativa y adecuarse a la legislación estatal básica en materia de subvenciones, a propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, el Gobierno vasco ha aprobado este decreto que pretende fortalecer a los agentes sociales en sus actividades de formación en materias propias de la negociación colectiva y el diálogo social.

De esta forma, y cumpliendo el mandato parlamentario de apoyar la formación en materia de participación de las personas trabajadoras en la empresa, se avanza también en el Plan Operativo de Brecha Salarial al priorizar la formación de los agentes sociales en materia de Igualdad. Junto a ello, se actualiza la subvención a la normativa de subvenciones y se simplifica su tramitación y la valoración de los planes.

En el Decreto se regulan las actividades subvencionables, el procedimiento de convocatoria, que será anual, y el de concesión de las ayudas, quedando establecidos los criterios de valoración de los planes formativos y de cuantificación de las ayudas.

## Educación

### EDUCACIÓN APRUEBA 55 MILLONES PARA LA FINANCIACIÓN DEL NUEVO EDIFICIO DE MEDICINA Y ENFERMERÍA, DENTRO DEL PLAN PLURIANUAL DE INVERSIONES

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la concesión de una subvención directa a la UPV/ EHU para la financiación de la construcción del nuevo edificio de la Facultad de Medicina y Enfermería, por importe de 55.035.217,94 euros, dentro del plan plurianual de inversiones.

El presupuesto total a financiar por el Gobierno Vasco para este proyecto asciende a 55.614.435,86 euros, incluyendo la redacción del proyecto, dirección de obra, control de calidad, así como la propia obra de construcción. Como parte de ese total, durante los ejercicios 2019 y 2020 el Gobierno Vasco ha financiado ya 579.217,93 euros, relativos a la redacción del proyecto.

Por tanto, la cuantía a financiar por el Departamento de Educación para la ejecución del proyecto de nuevo edificio de la Facultad de Medicina y Enfermería, entre los años 2021 y 2025, asciende a 55.035.217,94 euros, distribuida en las siguientes anualidades:

2021	2022	2023	2024	2025	TOTAL
392.723,99 €	3.500.000 €	14.600.000 €	29.400.000 €	7.142.493,95 €	55.035.217,94 €

El pago de la subvención se realizará tras la justificación del gasto realizado, presentando la documentación necesaria con anterioridad a la finalización de cada ejercicio presupuestario.

El nuevo edificio de la Facultad de Medicina y Enfermería se construirá en Bilbao, junto al Hospital de Basurto. Albergará los Grados de Medicina, Fisioterapia y Enfermería, así como la docencia de diversos másteres oficiales en el área de Ciencias de la Salud.

Además de los citados grados, en las nuevas instalaciones también se ubicará el *“Polo Avanzado en Formación Universitaria, Investigación Colaborativa y Transferencia del conocimiento en Ciencias de la Salud”*. Este Polo será un entorno de desarrollo de proyectos de investigación aplicada para la innovación de las empresas del sector de Ingeniería Biomédica y un elemento dinamizador para la transferencia del conocimiento generado en la creación de patentes y *start-ups*. Asimismo, el área de investigación colaborativa y transferencia se impulsará a través de la colaboración entre centros formativos de referencia de la UPV/EHU y centros de investigación básica y aplicada (BERC), entre otros el BERC *Achucarro Basque Center for Neuroscience*, BERC *BCMaterials* o el BERC *Biofisika*.

Actualmente, el proyecto se encuentra en fase de licitación de obra.

## Educación

### **2,9 MILLONES DE EUROS PARA LA ADQUISICIÓN O ARRENDAMIENTO DE MAQUINARIA Y/O EQUIPAMIENTO EN CENTROS CONCERTADOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan subvenciones, para la adquisición o arrendamiento de maquinaria y/o equipamiento dirigidas a centros privados concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional. Con un importe global de 2.918.106 euros, esta convocatoria tiene por objeto la financiación de la adquisición o cuotas de arrendamiento de maquinaria y/o equipamiento, así como gastos de instalación derivados de éstos. Esta convocatoria diferencia dos líneas, según ámbitos de actuación:

Ámbito 1: Destinado con carácter general a los centros concertados que imparten ciclos de Formación Profesional implantados en la modalidad presencial completa, para la actualización de maquinaria y/o equipamiento específico establecido para cada ciclo formativo y para la adecuación de espacios que permita implementar metodologías y herramientas innovadoras de aprendizaje. Este primer ámbito cuenta con 1.218.106 euros.

Ámbito 2: Destinado a los centros integrados concertados que imparten ciclos de Formación Profesional implantados en la modalidad presencial completa, para la respuesta a los retos de los entornos 4.0 e implementación de los planes de transformación digital y sostenibilidad de la Formación Profesional. Este ámbito cuenta con una financiación de 1.700.000 euros.

Para la valoración de las solicitudes de financiación recibidas por parte de los centros en el ámbito 1, el comité de valoración tendrá en cuenta, entre otros, los siguientes criterios: el número de ciclos formativos diferentes que ofrece el centro, número de alumnado matriculado en esos ciclos, el grado de implantación de la metodología de aprendizaje basado en retos ETHAZI, o la participación del centro en los programas de emprendimiento impulsados desde el Departamento de Educación.

Para el segundo de los ámbitos, se tendrán en cuenta para la valoración criterios como: la idoneidad del equipamiento adquirido para la implementación de las tecnologías propias del entorno 4.0 (realidad aumentada o virtual, robótica colaborativa, fabricación aditiva, internet industrial...); el alcance que este equipamiento tendrá en el centro; impacto de la inversión entre su alumnado y profesorado; relación de la maquinaria subvencionada con los proyectos iniciados en el centro; o los planes de formación del profesorado en estas tecnologías.

## **Actualización imprescindible**

En la actualidad, innovaciones como la inteligencia artificial, la robótica, los drones, las impresoras 3D, el internet de las cosas, la realidad virtual o las redes digitales son apenas algunos de los fenómenos que están desafiando las reglas clásicas del intercambio de bienes y servicios, lo que constituye un desafío para el sector empresarial y para la formación de las personas.

En este contexto, la Formación Profesional se presenta actualmente en Euskadi como un aliado fundamental tanto para la empleabilidad de las personas, como para la competitividad de las empresas. Estos retos requieren de la participación activa de los centros de Formación Profesional, que han de realizar las transformaciones necesarias para impulsar y desarrollar una formación adecuada a las necesidades reales de una sociedad 4.0. En esta tarea, un equipamiento actualizado y específico resulta imprescindible para los centros de FP.

En el pasado curso, un total de 39 centros concertados de FP fueron beneficiarios de estas ayudas económicas dentro del ámbito 1, mientras que en el ámbito 2 fueron 30 centros.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### **ELANKIDETZA APOYARÁ 77 PROYECTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO, ASISTENCIA TECNOLÓGICA Y EDUCACIÓN PARA LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL**

- **En total, se destinarán 32 millones de euros a países en su mayoría de Centroamérica, Suramérica, África subsahariana y Euskadi**

El Consejo de Gobierno ha aprobado la concesión de ayudas a proyectos de cooperación para el desarrollo de 2021. eLankidetza- Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, perteneciente al Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, ha concedido 32 millones de euros a 77 proyectos que se dividen en tres modalidades: ayudas a proyectos de cooperación para el desarrollo; ayudas a proyectos de desarrollo productivo, de formación y asistencia tecnológica, y ayudas a proyectos de educación para la transformación social. Esta convocatoria es el eje de actuación más importante de eLankidetza, tanto por su volumen de fondos como por el número de agentes y acciones que promueve.

Siguiendo las prioridades estratégicas de eLankidetza, el 26% de los fondos aprobados están dirigidos al empoderamiento de mujeres y el 9% irá para la protección de personas defensoras de derechos humanos. Por otro lado, el 20% se lleva a cabo en países africanos.

#### **Contribución a retos globales en contextos locales**

Los proyectos de cooperación para el desarrollo están dirigidos a contribuir a la lucha contra la pobreza y a fortalecer los procesos de desarrollo local que se den en países empobrecidos del Sur.

La mayoría de fondos se han dirigido a esta modalidad —alrededor de 26 millones de euros— y se subvencionarán 53 proyectos. Se llevarán a cabo en 21 países, de los cuales los principales son El Salvador, Guatemala y Perú, y en el continente africano, Senegal y Costa de Marfil.

Los proyectos de cooperación para el desarrollo se realizarán a través de organizaciones del Sur y estarán dirigidos, principalmente, al empoderamiento de mujeres y a la lucha contra la violencia contra las mujeres y las personas LGTBI, a la protección de personas defensoras, a la creación de modelos económicos solidarios y sostenibles, a la mejora de las condiciones de la infancia y juventud o a la realización de proyectos comunicativos.

En cuanto a las iniciativas de desarrollo productivo, de formación y asistencia tecnológica, se han aprobado cuatro proyectos que se llevarán a cabo en Cuba, y en Colombia. En total recibirán 1,2 millón de euros.



Por último, se han aprobado 20 iniciativas de educación para la transformación social por un monto de más de 4,7 millones de euros. La mayoría de iniciativas formarán en derechos humanos, educación en valores solidarios, economía social y solidaria, empoderamiento de mujeres y feminismos.

Todos ellos se realizarán en Euskadi, aunque tendrán un componente de conexión con las realidades del Sur. De hecho, el objetivo es impulsar la comprensión de las causas estructurales que generan las desigualdades mundiales e incentivar la implicación y el compromiso de la ciudadanía vasca.

En lo que va de año, eLankidetzeta ha adjudicado 5,9 millones de euros a proyectos de acción humanitaria, dirigidos a proteger a personas afectadas por crisis humanitarias en contextos de conflicto o situaciones de violencia, y otros 218.000 euros a ayudar a siete ONGD a eliminar las desigualdades de género en todos los niveles de funcionamiento interno.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### AYUDA A LA RED DE ECONOMÍA ALTERNATIVA Y SOLIDARIA

El Consejo de Gobierno ha aprobado una subvención directa, por un total de 150.000 euros, que será gestionada por eLankidetzeta-Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, perteneciente al Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales.

La ayuda está dirigida a la asociación REAS Euskadi, red de economía alternativa y solidaria. El objetivo es fomentar la intercooperación entre América Latina y Euskadi para fortalecer circuitos económicos de economía solidaria. Para ello, se quiere fortalecer las capacidades de los agentes que forman parte de REAS y la Red Comparte y sus posibilidades de desarrollar economía solidaria con un mayor impacto.

## Cultura y Política Lingüística

### **EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN DE 100.000 EUROS PARA LA ADQUISICIÓN DE LA OBRA DE ARTE *GUERNICA GERNIKARA* DE AGUSTÍN IBARROLA**

El Museo de Bellas Artes de Bilbao acogió el pasado 18 de octubre la presentación del *Guernica Gernikara* del artista bilbaíno Agustín Ibarrola. La obra fue adquirida en la edición de este año de ARCO por el Museo de Bellas Artes de Bilbao por 300.000 euros.

Las tres instituciones que integran la fundación del museo bilbaíno, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao, acordaron conceder una subvención extraordinaria de 100.000 euros cada una para la adquisición de este cuadro y así se ha adquirido el óleo realizado por Agustín Ibarrola en 1979. La compra de la obra contribuye a la recuperación y difusión del patrimonio artístico vasco.

#### ***Guernica Gernikara***

El artista bilbaíno Agustín Ibarrola pintó el *Guernica Gernikara* en 1979. Se trata de un gran friso narrativo compuesto por diez óleos sobre lienzo de 200 x 100 centímetros, con el *Guernica* de Picasso (1937) como punto simbólico de inspiración. El cuadro estuvo expuesto por primera vez en 1977 en el Museo de Bellas Artes de Bilbao, pero no ha vuelto a exhibirse desde principios de los años ochenta.

La obra es testimonio de una época determinada de la historia política y social de Euskadi; una pieza extraordinaria, tanto por sus dimensiones como por su calidad técnica y narrativa, y donde la madurez artística del pintor es evidente. Además, se trata de una de las obras con mayores singularidades dentro de las obras de Ibarrola, que tiene un gran valor artístico e histórico no sólo para el arte vasco, sino también para el arte español de la posguerra.